

Urrengo Krutwig euskaltzain barri jaunaren "De la índole estática y dinámica de los conceptos y de la forma interna de las lenguas" deritxon lan bat irakurri da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emon jako batzarra'ri amaiera.

\* \* \*

Bilbao'n, mila bederatzireun eta berrogetazortzi'garren urteko Jorralaren bian, Azkue jauna maipuru dala-ta Urkijo ta Oleaga euskaltzainak bertan dirala, egiten dau Euskaltzaindia'k il oneri dagokon batzarra.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzarra'ren agiria irakurri da ta aobetez onetsia izan da.

Urrengo Azkue jaunak irakurri dauz "Coincidencias del vascuence con varias lenguas cultas" deritxon lan ederraren atal batzuk.

Gero adierazo dira 1947'gko urteko artuemonak. Aunexek dira: Artuak 8.387,47 laurleko; emonak 10.192,30 laurleko. Urteko zorra edo utsa, 1.804,83 laurleko. Lendiko dirutza 6.953,65 laurleko. Gitxitua 1.804,83 laurleko. Geratu dana 5.149,02 laurleko.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

\* \* \*

Donostia'n mila bederatzireun eta berrogetazortzi'garren urteko Orri-la'ren ogatazortzi'an, Ekauta'ren jauregian eta Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Krutwig ta Oleaga euskaltzainak eta Tovar euskaltzain-urgazlea, il oneri dagokon Euskaltzaindia'ren batzarra egiteko.

Araudizko otoitzaz emoten jako asiera, ta urrengo lenaurreko batzarra'ren agiria irakurri-ta, ao batez onetsi da.

Gero Krutwig jaunaren "Del parentesco de la Lengua Vasca con otras lenguas asiáticas" deritxon lan bat irakurri da.

Urrengo aitau da Azkue jaunaren euskera-erdera iztegia barriri argifaratutea oso egoki izango litzakela. Asmo au aurrera eroatea arazo gaitza izango dala-ta, bere zertzeladak ikusi ta aztertu ondorean erabagiteko utzi da.

Oraintsu euskaltzain-urgazle izentauriko Tovar, Urizar, Caro Baroja ta Vallejo jaunak esker erakutsiz bidalduriko eskutitzak irakurri dira.

Azkenez Tovar euskal-urgazle jaunak dino Salamanka'ko Irakastegi Nagosian aurtengoa neguan euskal-gaizko irakaskuntzea erabili dabela. Poz-pozik entzun da barri atsegingarri au.

Eta beste barik, araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

\* \* \*

Donostia'n, mila bederatzireun eta berrogetazortzi'garren urteko Azila'ren ogetasei'an, Ekauta'ren jauregian eta Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Irigaray, Krutwig ta Oleaga euskaltzainak, il oneri dagokon batzarra egiteko.

Araudizko otoitza esan eta, lenaurreko batzar agiria irakurri da ta aobetez onetsia izan da.

Urrengo Krutwig jaunak irakurri dau izen bako lan luze bat. Oar batzuk egin dakoz.

Irigaray jaunak adierazoten dau Euskera-ikasbide errez bat gertuten dabilela. Berau zelakoa izango dan azaltzen dau ta euskaltzainen eretxia eskatzen dau. Poz-pozik entzun da barri au ta bere asmoa aurrera eroan dagialaren guraria agertzen dako.

Erdera-euskera iztegi barria aurrera doala diñoe lan onen ardurea darabilen euskaltzainak; e izkia amaituta dagoala dinoe.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaiera emoten dako batzarrari.